

# ZORNOTZA ARETOA DOHAINIK ERABILTZEKO ARAUAK

## 1. Artikulua. –Eskabideak

Eskaerak ZELAIETAKo erregistroan Kultura lokalak eskatzeko ezarritako inprimakian eta gutxienez aste bete arinago egin beharko dira.

## 2. Artikulua. – Emateko irizpideak

Zornotza Aretoa dohainik erabiltzeko baimena emateko, honako irizpide hauek nagusituko dira:

- Herriko kultur eta kirol elkarte bat izatea edo modu profesionalean antzerkia, dantza, zinea, musika edo bestelako kultur ekintzak burutzen dituzten enpresak edo pertsonak izan beharko dira eskariak egiten dituztenak.
- Zornotza Aretoko egitarau egonkorra eta zine egitaraua
- Langileriaren egoera eta ordutegiak (Zornotza Aretoa kudeatzen duen enpresakoak)
- Egun bererako eskaera bat baino gehiago jasoko balira, lehentasuna Erregistroan lehenengo aurkeztu den eskaerari emango zaio.
- 

## 3. Artikulua. – Zornotza Aretoaren erabileraren helburua

- Edozein erabilpenerako AMOREBIETA-ETXANOKO udaleko kulturako teknikari batek baimendu beharko du aztertu ondoren.
- Elkarrekin antolatzen dituzten ekintzak beti doakoak izan beharko dira, dalbu eta zenbait kasu berezi, AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAK espresuki baimendu beharko dituenak.
- Elkarrekin ekitaldiak antolatuz gero Zornotza Aretoko ordutegira egokitu beharko dira, eta Zornotza Aretoko pertsonalaren bitartez antolatuko da sarreraren inpresioa eta onarpena, jarlekuen antolaketa eta ateak zabaltzea eta ixtea.
- Kultur enpresak antzerki, dantza eta musika erresidentzietarako eginiko eskarrietan beharrezko baliabideak eta ordutegia finkatu beharko dute. Horren arabera Zornotzako langileak ordutegi konkretu batean baino ez dituzte lagunduko.

- Kultur enpresak antzerki, dantza eta musika erresidentziak Zornotza Aretoan burutzeagatik AMOREBIETA-ETXANOKO UDALAREN logoa jarri beharko dute lanaren emaitzeren kartel, web eta bestelako euskarrietan.
- Kasu guztietan erabiltzaileek ezin izango dute programazioa nahastu edo eragotzi, ez eta ZORNOTZA ARETOKO eguneroko funtzionamenduari traba egin ere. Ordutegi honetatik kanpo egiten den guztia, arduradunen iritzien arabera egingo da, langileria eta programazioa kontutan hartuta.
- Zornotza Aretoa erabiltzeko baimena izateak ez du esan nahi eskatzaileak barruan edozein leku edo material erabil dezakeenik.
- Baimen hau Hiri Alokairuen Legetik kanpo geratzen da bereziki.
- 

#### **4. Artikulua. – Zornotza Aretoa eskatzen dutenen eskubide eta betebeharrak**

- Eskatzaileak ekitaldian edo erresidentzian parte hartuko duten pertsona guztiek hurrengoak beteko dutenaren konpromisoa hartzen du:
  - o ZORNOTZA ARETOKO Segurtasun eta Higienari buruzko arauak jarraitu
  - o Baimendutako ordutegia errespetatu. Erresidentzien kasuan batez ere sarrera eta irteera ordutegiak, eta baliabide teknikoetarako eskarien kasuan ZORNOTZA ARETOKO teknikariaren ordutegi zehatzak horretarako eskaini direnak eskariaren arabera.
  - o ZORNOTZA ARETOAK arautegi honetan edo baimena ematerakoan adierazitako beste arauak jarraitu
- Eskatzaileak honako ardura hauek hartuko ditu:
  - o ZORNOTZA ARETOA zegoen egoera berean uztearena
  - o Erabilpena txarra edo ardura faltagatik ekitaldian edo erresidentzian gerta daitezkeen kalteena
- Baimenak ez du ZORNOTZA ARETOKO langileak erresidentzien kasuan lanerako erabiliko direnik esan nahi, ekipamendu teknikoa eta materiala erabiltzeko baimena eskaeran bertan azaldu beharko dira, eta Kultur enpresak bere teknikaria ekarri beharko du. ZORNOTZA ARETOKO teknikariak ordu batzuk erabiliko ditu ekipamendua azaltzeko baina denbora hori aurretik finkatuko da eta AMOREBIETA-ETXANOKO udalaren teknikari baten baimena izan beharko dute. Erresidentziak burutzeko hasierako sarrera eta irteera ZORNOTZA ARETOKO pertsonalak burutuko du, baina ordutean zehar sarrerak eta irteerak enpresaren esku geldituko dira eta honek kontrolatzeko langile bat behar izanez gero eskatzailearen kontura joango da kontratatu beharreko aparteko langileria.
- Kasu guztietarako telefonoa edo bulegoetako materialak ezin izango dira erabili.